



## **BASAURIKO UDALAK ETXeko INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO ETA GIZARTE-LARRIALDIKO EGOERETARAKO DITUEN HARRERA-ETXEAK ARAUTZEKO ARAUDIA.**

### **ZIOEN AZALPENA**

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan gizarte-zerbitzuen prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko eskubidea sustatu eta bermatzea, eta, horretarako, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsal bat arautu eta antolatzea, prestazioez eta zerbitzuez baliatu ahal izatea eskubide subjektibotzat ezarrita. Lege horren III. tituluari, euskal administrazio publikoen eskumen-araubidea arautzen da eta, 42. artikuluan arabera, Udalek eskumena izango dute, bakoitzak bere udalerrian, besteak beste, "Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak eskaintzeko".

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren 33.2.a) artikuluan udal-eskumeneko zerbitzuak eta prestazio edo laguntza ekonomikoak garatzen dira eta horien artean daude ostatu-zerbitzuak/harrera-etxeak.

185/2015 Dekretuaren I. eranskinean ostatu-zerbitzua/harrera-etxea definitzen da, eta bi zerbitzu mota ezartzen dira: 1.- Gizarte-premiako egoerei erantzuteko harrera-etxea, eta 2.- Etxeko indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako harrera-etxea; horretaz gain, zerbitzuaren helburuak eta eskaintzen dituen prestazioak zehazten dira, baita hartzaileak eta lortzeko baldintzak ere.

Aipatutako arau horietan xedatutakoari jarraikiz, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen (2/2016 Legea, apirilaren 7koa) eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen (7/1985 Legea, apirilaren 2koa) bitartez onartutako tokiko araugintza-ahala baliatuta, eta gizarte-zerbitzuak antolatu, planifikatu eta kudeatzearen arloko udal-eskumenak eta 2/2016 Legearen 17.1 artikuluan eta 7/1985 Legearen 25.2 artikuluan aipatzen direnak baliatuta, zehaztutako tipologia bakoitzerako beharrezkoak diren baliabideez hornitu du udalerrria Basauriko Udalaren Gizarte Politika Arloak eta, baliabide horien kudeaketa eta funtzionamendu egokirako, Araudi hau egin da, premia-eta eraginkortasun-printzipioetan oinarrituta, interes orokorreko gaia delako, eta tresnarik egokiena delako baliabideak berdintasun-baldintzetan eskuratzeko helburua beteko dela bermatzeko.

### **LEHENENGO TITULUA XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. artikulua.- Xedea**

Araudi honen xedea arauak ezartzea da, hain zuzen ere, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan (33.2.a art.) jasotzen diren udal-eskumeneko ostatu-zerbitzuak/harrera-etxeak (1.9.1) arautzen dituzten arauak ezartzea.



2. artikulua.- Definizioa eta helburua.

1. Gizarte-larrialdiko egoeretarako harrera-etxean, gizarte-larrialdiko edo gizarte-premiatzko egoera baten ondorioz ostaturik ez izateari aurre egin ahal izateko iraupen laburreko egonaldia behar duten pertsonak eta bizikidetz-unitateak hartzen dira, aldi baterako.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren 28. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hau hartuko da gizarte-larrialdiko egoeratzat: kausa naturalak edo eragindakoak direla medio aurreikusi gabeko gertakari batek eragindako egoera, gaitasun pertsonalak, bizirauteko baliabideak eta bitartekoak, gizarteko eta familiako harremanak edo sareak, eta segurtasuna eraginpean hartzen dituen eta estatusunean jartzen dituen, eta horren ondorioz, eraginpeko pertsonak babesgabetasun-egoera larrian geratzen direnez, larrialdiko lehen arreta, berehalakoa eta ezinbestekoa behar dute, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak gertakari horietatik eratorritako gizarte-premiei erantzuteko eta egoera hori ez larriagotzeko eta kalte handiagorik ez eragiteko.

2. Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-pisuaren xedea da aldi baterako harrera egitea emakumeei eta haien mende dauden pertsonen, baldin eta ostatu hartzeko beste toki baten beharrez badaude etxeko indarkeria-egoera gainditzeko eta euren onera itzultzeko, betiere babes-neurririk behar ez badute.
3. Inguruabar berezirik ezean, zerbitzu horiek ostatua eman baino ez dute egiten, eta ez dute inolako tutoretzarik eskaintzen; halaber, etxe horietan ez da izaten harreraren hartutako pertsonak zaintzeko inor, baina pertsona horien jarraipena ez ezik, etxebizitza okupatzera eraman dituen egoeraren eta dagokien esku-hartze planaren jarraipena ere egingo dute udaleko Gizarte Zerbitzuek.

3. artikulua.- Izaera juridikoa.

Harrera-etxeak kokatzen diren higiezinak zerbitzu publikora bideratutako jabari publikoko ondasunak dira izaera juridikoari dagokionez; beraz, ondasun hori aldi baterako okupatzeko akordioek administrazio-izaera izango dute, eta honako hauen arabera arautuko dira: euren klausulen arabera, Araudi honen arabera eta, aurretik xedatu ez den orotan, administrazio-zuzenbideko arauen arabera, betiere zuzenbide zibileko arauen aplikazio osagarria alde batera utzi gabe, aurrekoaren aurkakoa ez den orotan.

Administrazio-arloko arauetan udalerriei ematen zaizkien ahalmenak izango ditu Basauriko Udalak Araudi honetan xedatutakoa interpretatzeko eta aldatzeko, interes publikoko arrazoiak direla-eta; bestalde, horiekin lotuta sortzen diren auzi guztiak ebazteko eskumena administrazioarekiko auzien jurisdikzioari dagokio.

## **II. TITULUA**

### **ERABILTZAILERAK SARTZEKO ETA BAJA HARTZEKO ARAUBIDEA**

#### **LEHENENGO KAPITULUA**

##### **ONURADUNAK ZEHAZTEA: SARTZEKO BALDINTZAK.**

4. artikulua.- Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxea.



1. Araudi honen ondorioetarako, harrera-zerbitzuan artatutako pertsonak honako hauek izango dira:
    - a) Adinez nagusi diren emakumeak edo aldi baterako eta premiazko bizitokia behar duten emakume adingabe emantzipatuak, etxean tratu txarrak jasan dituztelako ohiko bizilekutik edo ostatutik alde egitera behartuta daudenak eta horrelako zerbitzu bat behar dutenak.
    - b) a) idatz-zatian aipatutako emakumeen mende dauden pertsonak; emakumeen kargurako seme-alabak izan daitezke –adingabeak izan edo ez–, edo mendeko beste heldu batzuk, betiere bizikidetzaren unitate berekoak badira.
  2. Harrera-etxean sartu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:
    - a) Etxeko indarkeriaren biktima izatea.
    - b) Sartzeko baimena ematen duela modu frogagarrian adieraztea. Baimen hori Udalak emandako sarrera-kontratuaren dokumentuan jasoko da.
    - c) Segurtasun-baldintzetan bizitzeko beste etxebizitza ez izatea edo berehala lortzerik ez izatea.
    - d) Adinez nagusia edo legez emantzipatutako adingabea izatea.
    - e) Basauriko udalerrian erroldatuta egotea eta/edo benetan bertan bizitzea.
    - f) Jokabide-nahasmendurik ez izatea, eta/edo zerbitzuaren funtzionamendua edo zerbitzuko bizikidetzaren normala larriki aztoratzea edo aztoratzen ari dena, beste erabilgaitzaile batzuentzat eta esku har dezaketen profesionalentzat arriskutsuak izan daitekeen portaerarik ez izatea.
    - g) Gizarte Zerbitzuen Sarearen zuzkiduren irismen eta aukeretatik kanpoko osasun-laguntza espezializatu eta/edo iraunkorrik behar ez izatea.
    - h) Ez izatea ezintasun edo gaixotasun fisiko eta/edo psikikorik, eguneroko bizitzako oinarrizko zereginak egiteko hirugarren pertsonen laguntza behar izatea dakarrenik, edo hirugarren pertsonentzat arriskua ekar dezakeenik, edo etxe bizikidetzaren normala aztoratzea ekar dezakeenik.
  3. Edonola ere, plazak libre egotea ezinbestekoa izango da sartu ahal izateko, baina plaza guztiak beteta egoteak ez du esan nahi emakumeari eta haren familiari behin-behineko alternatiba bat bilatuko ez zaionik.
5. artikulua.- Gizarte-larrialdiko egoerei erantzuteko harrera-etxea.
1. Gizarte-larrialdiko etxe batean sartzeko eskaera egiten duten pertsonak edo bizikidetzaren unitateek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
    - a) Adinez nagusi izatea eta eguneroko jardueretan autonomo izatea.
    - b) Basauriko udalerrian erroldatuta egotea eta/edo benetan bertan bizitzea.
    - c) Familia-unitatearen beharretara egokitzen den beste etxebizitza baten aukerarik ez izatea.
  2. Araudi honen ondorioetarako, eskatzaileak etxebizitza-premia larria duela joko da honako egoera hauetakoren batean dagoenean:
    - a) Hondamendi natural baten (uholde baten edo antzekoren baten) edo ezbehar baten (sute, leherketa edo antzekoren baten) ondorioz, Basauriko ohiko etxebizitza utzi behar izatea.



- b) Aurreikusi gabeko familia-gatazka larri baten ondorioz, Basauriko ohiko etxebizitza utzi behar izatea, baldin eta familia-gatazka horrek arriskuan jartzen badu eskatzaileen segurtasun fisikoa edo emozionala, eta ezin bada konpondu epe laburreko bestelako errekursoekin; gatazkak eskatzaileei egotzi ezin zaizkien arrazoiengatik sortua izan behar du, eskaera aurkeztu baino lehen.
3. Nolanahi ere, etxebizitza-premian alegatutako edozein arrazoi egiaztatu edo justifikatu beharko da modu frogagarrian, eta administrazio-egiaztapena ere egin ahal izango da, egoki irizitako udal-txosten teknikoen bitartez.

## **BIGARREN KAPITULUA** **SARTZEKO PROZEDURAK**

### 6. artikulua.- Prozedura arrunt erkidea.

#### 1. Eskabidea.

Ostatu-baliabidearen eskaera egiten duen pertsonak edo familia-unitateak Basauriko Udaleko Gizarte Zerbitzuen bitartez aurkeztu beharko du eskabidea, Udalak emandako ereduaren arabera formalizatutako instantzian. Ezinbestekoa izango da pertsona hori edo horiek aurreko artikuluetan etxebizitza bakoitzerako adierazitako egoeraren batean egotea.

#### 2. Izapidetzea eta Balorazioa.

Sartzeko eskaera jaso ondoren, Udaleko Gizarte Zerbitzuek izapidetu egingo dute, egoeraren premiak eskatzen duen berehalakotasunarekin.

Eskaeraren balorazioa Gizarte Zerbitzuetako teknikariek egingo dute, eta nahitaezko txosten bat egingo dute, honako datu hauek zehaztuta:

- Herreran hartu beharreko pertsonaren edo pertsonen identifikazio-datuak.
- Bizikidetzaren unitateko gainerako kideen identifikazio-datuak.
- Ostatu-eskaera egiteko arrazoiak, 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoak.
- Ostatu ematearen egokitasunari buruzko balorazioa eta, aldekoa bada, egonaldiaren iraupena proposatzea.
- Aldi horretan egin beharreko esku-hartze profesionala.
- Herreran hartutako bizikidetzaren unitateak hartzen dituen konpromisoak.

Txosten hori eta bertan adierazitako inguruabarrak egiaztatze behar den dokumentazio guztia espedientean sartuko dira.

Gizarte-larrialdiko etxearen kasuan, espedientea betetzeko, Gizarte Zerbitzuek beharrezkotzat jotzen dituzten udal-arloen laguntza izan ahal izango dute. Arlo horiek zazpi eguneko epea izango dute, gehienez ere, dagokien nahitaezko txostena egiteko, eskatzaileen egoera baloratzearren.

Eskaera aztertu eta baloratu ondoren, proposamena Alkatezara eramango da, eta alkateak, ebazpena bidez, harrera-etxean aldi baterako sartzeko eskaera baietsi edo ezetsiko du.

#### 3. Sartzeko lehentasun-ordena.

Libre dauden plazen arabera, sartzeko lehentasun-ordena irizpide hauen arabera izango da:



\*Harreran hartutako en artean adingabeak eta/edo % 65eko edo gehiagoko mendetasun-egoera eta/edo desgaitasun-maila aitortuta duten pertsonak eta/edo mendeko pertsonak ardurapean izatea.

#### 4. Ebazpena.

Eskaera udal-erregistroan sartu eta, gehienez ere, hilabeteko epean eman beharko da ebazpena; ebazpen horretan zehaztuko dira okupazioaren baldintzak.

Aurreko atalean aurreikusitako epea igarotakoan, ez bada espresuki ebazpenik eman, eta ebazteko derrigortasunari kalterik eragin gabe, eskaera ukatutzat ulertuko da, eta interesdunak aukera izango du aukerako berraztertze errekurtsioa edo administrazioarekiko auzi errekurtsioa ezartzeko.

Harrera-etxea erabiltzea onartzen duen ebazpena emanek gero, etxean sartu baino lehen Arreta Pertsonalizatua emateko Plana egin beharko da onuradunarentzat. Onuradunak ez badu Plan hori sinatzen, zerbitzuari uko egiten diola ulertuko da.

#### 7. artikulua.- Premiazko sarbide-prozedura.

1. Pertsona edo familia-unitateren batek edozein ostatu-baliabide berehala okupatu behar duen egoera suertatuz gero espedientearen ebazpen arrunta eman arte itxarotea ahalbidetzen ez duten arrazoiengatik, Alkatetzaren Dekretu baten bitartez behin-behinean baimendu ahal izango da egokitze jotzen diren pertsonak dagokion etxean sartzera, baita eskaera formalizatu ez denean eta nahitaezko dokumentazioa aurkeztu ez denean ere.

Horren ondoren, berehala emango zaio hasiera aurreko artikuluan ezarritako prozedura arruntari, behin betiko ebazpena emateko. Ebazpena gehienez hilabeteko epean eman beharko da, zerbitzuan sartzeko egunetik zenbatzen hasita.

2. Baldin eta, zerbitzuan premiazko prozeduraren bitartez sartu ondoren, prozedura hori behin-behinean onartu zaien pertsonak uko egiten badiote espedientearen hasierako edo izapidetzeko prozesuan laguntzeari, edo, espedientearen ondorioz, planteatutako eskaera ukatzea erabakitzen bada, etxebizitza utzi behar dutela jakinaraziko zaie, eta hori gehienez ere bost egun naturaleko epean egin beharko dute, jakinarazpena jasotzen dutenetik kontatzen hasita. Ukatu egingo balira, erabiltzaileak ateraraztea eskatuko da.

#### 8. artikulua. Datu pertsonalak babestea.

Basauriko Udaleko Gizarte Zerbitzuek onuradunen adierazpenak egiaztatu ahal izango dituzte, eta beharrezkoak diren datu eta txosten guztiak eskatu ahal izango dizkiete beste erakunde publiko eta pribatu batzuei, interesdunaren baimenarekin.

Bereziki, bitarteko elektronikoak erabiliko dira informazio hori jasotzeko, baldin eta, datu pertsonalen kasuan, interesdunen baimena izanez gero honako arau hauen arabera: 3/2018 Legea, Datu Pertsonalak babestekoa, eta 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 17koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa. Baimen hori bitarteko elektronikoaren bidez eman eta eskatu ahal izango da.



## **HIRUGARREN KAPITULUA** **ERABILERA ETA LUPERKETA ARAUBIDEA**

9. artikulua.- Harreraldiaren iraupena.

Zerbitzua emanaz gero, organo eskudunaren ebazpenean harreraldiaren iraupena jaso beharko da; iraupen hori kasuaren ezaugarrien eta zerbitzuaren beharra eragin duen egoera konpontzeko aukeren arabera finkatuko da.

Oro har, iraupena ez da 4 hilabetetik gorakoa izango, sarrera-agiria sinatzen denetik kontatzen hasita, eta salbuespen gisa, gehienez ere beste lau hilabetez luzatu ahal izango da, organo eskudunaren ebazpen bidez, dagokion balorazio teknikoa egin ondoren. Nolanahi ere, udal-etxebizitzan gehienez ere 8 hilabetez egon ahal izango da.

10. artikulua.- Harrera-etxeen okupazio-maila.

- Harrera-etxeen gehieneko edukiera sei pertsona da, bizikidetzaren unitate bakar batek okupatzen duenean.
- Aldi berean bi bizikidetzaren unitatek okupatzen dutenean, gehieneko edukiera bost pertsona izango da, bi unitateak batuta.
- Kide bakarreko bizikidetzaren unitateak direnean, gehienez ere hiru unitatek partekatuta ahal izango dute etxea.
- Uneren batean familia-unitateak eta kide bakarreko unitateak egongo batera balira, kide guztiak batuta gehienez bost pertsona egon ahal izango dira.
- Kasu guztietan, gehieneko edukieraren zenbaketan helduak, haurrak eta nerabeak sartzen dira.

11. artikulua.- Egonaldiaren garapena. Bizikidetzaren arauak.

1. Egonaldia –baliteke partekatuta izatea– behar bezala garatzeko, bizikidetzaren arau hauek ezarri dira:
  - a) Bi etxebizitzetako erabiltzaileek beren ohiko etxebizitza moduan eta dagokien xederako soilik okupatu beharko dituzte. Okupazioaldiak irauten duen bitartean, etxebizitza egoki erabili beharko dute, norberarena izango balitz bezala, baita etxebizitza dagoen higiezinaren elementu komunak ere, eta Jabeen Erkidegoa arautzen duten estatutu-arauak ez ezik, halakorik ezean, jabetzak erregelamenduz onartzen dituenak ere bete beharko dituzte.
  - b) Debeztatuta dago etxebizitzako gune guztietan erretzea. Nolanahi ere, Tabakismoaren aurkako osasun-neurriak eta tabako-produktuen salmenta, hornikuntza, kontsumoa eta publizitatea arautzen dituen abenduaren 26ko 28/2005 Legean ezarritakoa bete beharko da.
  - c) Ezin izango dira eduki eta erabili istripua eragin dezaketen objektu arriskutsuak.
  - d) Debeztatuta dago etxekeko animaliak edukitzea etxean, honako kasu hauetan izan ezik: gida-txakurrak izatea, egonaldiaren garapen egokirako beharrezkoak izatea edo hala aholkatzen duen txosten profesional bat izatea, betiere ez bada bateraezina etxebizitza berean helburu berberetarako beste erabiltzaile batzuk egotearekin.
  - e) Berariaz debeztatzen da alkohola eta mendekotasuna sortzen duten beste substantzia batzuk kontsumitzea.





- f) Etxebizitzak, altzariak eta gainerako tresnak mantentzeko lan komunak etxeak okupatzen ari diren pertsonen kontura izango dira, eta ezingo dituzte material antihigienikoak eta/edo arriskutsuak gorde.
  - g) Bizilagunen ekimenez, okupatzen ari diren etxebizitzetan ezin izango da obrarik egin. Instalazioetan matxuraren bat izanez gero, berehala jakinarazi beharko diote Udalari.
  - h) Okupatzaileek bidegabe edo zabarkeriaz erabiltzeagatik eragindako kalteak aurkituz gero, horiek konpontzearen edo birjartzearen gastuak beren gain hartu beharko dituzte.
  - i) Etxebizitza Udalari entregatu beharko zaio dagokion epea amaitzean, eta etxebizitza eskuratu zutenean aurkitu zuten egoera berean.
2. Berariaz debekatuta dago etxebizitzatik kanpoko pertsona oro etxebizitzara sartzea, bereziki etxe indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxeari dagokionez, salbu eta Basauriko Udaleko langileak badira edo Udalak bere eskumenak erabiliz baimendutako profesionalak badira. Era berean, etxe indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxearen erabiltzaileek ere ezin izango dute informaziorik eman etxebizitzaren edo haiekin bizi diren beste egoiliar batzuen kokapenari buruz. Salbuespen gisa, gizarte-larrialdiko etxebizitzan aldi baterako baino ezin izango da sartu, inola ere ez behin betiko.
  3. Harrera-etxearen erabiltzaile den emakumeak udaleko gizarte-zerbitzuetako erreferentziako gizarte-laneko teknikarien laguntza izango du, eta langile horiek izango dira prozesuan lagunduko diotenak. Bere egoera hobetzera bideratutako gizartratze-ibilbide bat egingo du berarekin, eta beharrezko laguntzak izango ditu beste esku-hartze eremu batzuen barruan (juridikoa, arreta psikologikoa, adingabeentzako berariazko arreta-protokoloak, hezkuntzakoa, osasun-arlokoa...).
  4. Udala eta udal-zerbitzu teknikoak ez dira inola ere erantzule izango Araudi honetan jasotako etxebizitzetan bizi diren pertsonen gordailututako dirua eta bestelako objektu baliotsuak galduz gero.

## **LAUGARREN KAPITULUA HARRERA IRAUNGITZEA**

12. artikulua.- Harrera iraungitzeko arrazoiak.

Harrera-zerbitzua iraungi ahal izango da honako arrazoi hauek direla tarteko:

- a) Harrerarako aurreikusitako aldia amaitzea, baita, hala badagokio, onartzen den luzapena ere.
- b) Erabiltzaileak berariaz uko egitea; idatzita egin beharko du, eta udaleko gizarte-zerbitzuei jakinarazi.
- c) Erabiltzailearen heriotza.
- d) Etxebizitza zazpi egunetik gorako aldi batez uztea, aldezturik ezer esan gabe eta absentzia justifikatzen duen arrazoirik egon gabe.
- e) Zerbitzua ematea eragin zuen premia desagertzea.
- f) Zerbitzua ematean kontuan izan ziren datuak faltsuak izatea edo daturen bat ezkutatu izana.
- g) Zerbitzua eskuratzeko eskatutako baldintzetakoren bat betetzei uztea.
- h) Zerbitzuari jarraipena egiteko eskatutako dokumentazioa ez aurkeztea.



- i) Beste erabiltzaile batzuei edo Udaleko langileei eraso fisikoa edo psikologikoa egitea.
- j) Zerbitzuaren bi ordainagiri berandu ordaintzea, justifikatu gabe, gizarte-larrialdiko etxearen kasuan.
- k) Araudi honetan edo, hala badagokio, sinatzen den dokumentuan ezarritako edozein betekizun eta betebeharrak ez betetzea.
- l) Gizarte Zerbitzuetako langileei edo haiek baimendutako beste pertsona batzuei sartzen ez uztea.
- m) Bizikidetzara-arauek ez betetzea.
- n) Familiaren banakako arreta-planaren eta etxebizitza lagatzeko kontratuaren esparruan egin beharreko ekintzak ez betetzea.
- o) Zerbitzua kentzea, Basauriko Udalak gehiengo osoz erabakia hartu ondoren.
- p) Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxearen kasuan, onuradunaren egonaldian intentsitate handiagoko gizarte- eta hezkuntza-arreta eta/edo arreta psikosoziala behar dela edo arreta espezializatua eskatzen duen gizarte- edo osasun-arazo bat dagoela antzematen denean.

### 13. artikulua.- Harrera iraungitzearen ondorioak.

1. Iraungitzea deklaraturik, erabiltzaileak zerbitzua utzi beharko du ebazpenean adierazitako epean.
2. Araudi honetan aurreikusitako arrazoiren batengatik edo emandako epea amaitzeagatik etxebizitza utzi behar duten erabiltzaileek uko egiten badiote etxea uzteari, utzarazpen administratiboaren bidez behartu ahal izango dira, Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduan edo horren ordezkari araudian aurreikusitako izapideei jarraituz.
3. Etxea utzarazitako pertsonak ordaindu beharko dituzte botatzeak eragindako gastuak.

## **HIRUGARREN TITULUA ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

### 14. artikulua.- Harrera Etxeen erabiltzaileen eskubideak.

1. Oro har, 64/2004 Dekretuan (apirilaren 6koa, zeinaren bidez onartu baita Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharraren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea) xedatutakoa aplikatuko da, baita Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikuluan aurreikusitakoa ere.
2. Berariaz, erabiltzaileak eskubide hauek izango ditu:
  - a) Etxean jarraitzeko eskubidea, Araudi honetan harrera iraungitzeko adierazitako arrazoiak bat gertatzen ez den bitartean.
  - b) Etxebizitza bere borondatez uzteko eskubidea.
  - c) Bere pentsamendu-askatasuna, iritzi-askatasuna, ideologia-askatasuna, erlijio-askatasuna baliatzean eta bere sinesmen zibiko, moral eta politikoak errespetatua izateko eskubidea.
  - d) Jaiotzagatik, arrazagatik, erlijioagatik, ideologiagatik edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialengatik diskriminatua ez izateko eskubidea.
  - e) Norberaren eta familiaren intimitatea errespetatzeko eskubidea.





- f) Intimitateari dagozkion datu pertsonalak isilpean gordetzeko eta babesteko eskubidea.
  - g) Barneko arau eta eginkizunei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.
  - h) Bere egoerari egokitutako zerbitzu edo prestazioei buruzko informazioa eta orientazioa jasotzeko eskubidea.
  - i) Basauriko Udalak eskaintzen dituen espazio eta zerbitzuak erabiltzeko eskubidea, ezarritako baldintzetan, baita etxebizitzan dauden erabilera komuneko objektu, ekipamendu eta tresnak erabiltzekoa ere.
  - j) Onarpen-baldintzei eusteko eskubidea.
  - k) Eguneroko funtzionamenduari dagozkion zereginak eta jarduerak banatzen eta egiten parte hartzeko eskubidea.
  - l) Emandako zerbitzuari buruzko iradokizunak, kexak eta erreklamazioak aurkezteko eskubidea, eta, hala badagokio, Araudi honetan ezarritako konpromisoak ez betetzeko, ostatu-baliabideen funtzionamendua hobea izan dadin.
  - m) Proposatutako iradokizun eta kexei buruz Udalaren aldetik erantzuna jasotzeko eskubidea.
3. Nolanahi ere, erabiltzaileek eskubidea izango dute eskubide horien edukiari eta eskubide horiek benetan baliatzeko bideei buruzko informazioa jasotzeko, erraz ulertzeko moduko hizkera erabilia.

#### 15. artikulua.- Harrera Etxeen erabiltzaileen betebeharrak.

- a) Gizarte Zerbitzuekin lankidetzan aritzea, egindako eskaera ahalik eta azkarren eta hobekien ebazteko.
- b) Gizarte Zerbitzuek eskatutako dokumentazioa behar den epean aurkeztea, eta une oro egiazko informazioa ematea, ostatu hartzeko udal-baliabidean sartzea eragin duen arrazoiak konpontzeko aukera emango duen arreta integral egokia bermatzeko.
- c) Araudi honetan etxebizitzaren erabilerari eta luperketari buruz ezarritako arauak betetzeko konpromisoaren agiria eta harreraren eskabide-orria sinatzea.
- d) Esku-hartzearen banakako/familiako planean gizarte-langilearekin adostutako helburuak eta zereginak betetzea.
- e) Elkarrekiko errespetuan, tolerantzian eta lankidetzan oinarritutako jokabidea izatea, bizikidetzaren ahalbidetzarren eta bizikidetzaren ahalbidetzea bermatuko duten barne-arauak betetzearen.
- f) Baliabidea partekatzen duten pertsonen eta etxebizitzaren kudeaketaz arduratzen diren langileen duintasuna eta pentsamendu-askatasuna, iritzi-askatasuna, ideologia-askatasuna eta erlijio-askatasuna errespetatzea.
- g) Zerbitzua hainbat bizikidetzaren unitatetako kideek partekatzen badute, bizimodu-arau kolektiboak bete beharko dira garbitasunari, higienerari, ordutegiari eta abarri dagokienez. Norbera arduratuko da bere logela eta objektu pertsonalak txukuntzeaz eta garbitzeaz. Denek erabiltzeko diren elementuetako (korridorea, atondoa, sukaldea, komuna, balkoiak eta abar) etxeko lanei dagokienez, akordio batera iritsi beharko dute, eta errespetatu eta bete egin beharko dute.
- h) Erabiltzailearen ardurapean dauden pertsonen osasun-zaintzaren, garbitasun pertsonalaren eta eskolatze egokiaren erantzule izatea, baita



haien ondasun pertsonalena ere, eta ezin izango dute etxebizitzan, inolaz ere, bakarrik egon, ez egunez, ez gauez.

- i) Araudi honetan eta barne-funtzionamenduko arauetan (bizikidetzarauak) ezarritakoa betetzea.
- j) Zerbitzuaz arduratzen diren udaleko langileei edo Udalak baimendutako beste pertsona batzuei etxebizitzara sartzen utzi beharko zaie.
- k) Zerbitzu hau erabiltzea eragin duen egoera konpontzeko beharrezkoak diren kudeaketa administratibo, judizial eta/edo bestelakoak egitea.
- l) Etxea uztea irteera-jakinarazpenean adierazitako epean.
- m) Dagokion udal-ordenantza fiskalean gizarte-larrialdiko egoerei erantzuteko harrera-kasuetarako zehazten den ekarpen ekonomikoa ordaintzea.

Bereziki, etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxearen barruan, honako betebeharrak bete beharko dira:

- a) Herreran hartutako emakumeen eta haiekin dauden pertsonen anonimotasunari eustea, baita harrera-etxearen helbidearen kasuan ere.
- b) Emakumeen eta herreran hartutako gainerako pertsonen beharrezko babesa bermatzen duten babes- eta segurtasun-neurriak betetzea eta errespetatzea.

Erabiltzaileen artean gatazkarik egonez gero, edo erabiltzaileek g) letran aipatutako bizimodu-arau kolektiboak zehazteko akordiorik lortzen ez badute, Gizarte Zerbitzuen mendeko lantalde tekniko bat arduratuko da, modu harmonikoan eta adostuan, neurri egokiak erabaki eta dagozkien jarraibideak ezartzeaz; nahitaez bete beharrekoak izango dira.

## **LAUGARREN TITULUA ARAUBIDE EKONOMIKOA**

16. artikulua.- Erabiltzaileen ekarpena.

- 1) Gizarte-larrialdietarako ostatu-zerbitzua/harrera-etxea koordainketari atxikita dago. Erabiltzaileek dagokion ordenantza fiskalean urtero finkatzen diren zenbatekoak ordaindu beharko dituzte.
- 2) Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako ostatu-zerbitzua/harrera-etxea doakoa izango da.

17. artikulua.- Zerbitzua erabiltzearen ondoriozko gastuak.

Basauriko Udalak ordainduko ditu higieztina edukitzearekin edo erabiltzearekin lotutako mantentze-gastuak (argia, ura, gasa, edozein motatako tasak edo zergak eta jabeekideen erkidegoa), baita konponketek eragindako gastuak ere, betiere konponketak herreran hartutako pertsonen egotz dakizkiekeen arrazoiengatik egin behar direnean izan ezik.

## **XEDAPEN GEHIGARRIA.- Aplikatu beharreko araubide juridikoa.**

Araudi honetan berriaz aurreikusi ez den orori dagokionez, honako arau hauetan bildutako xedapenak aplikatuko dira, osagarri: Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean



(12/2008 Legea, abenduaren 5koa), Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuan (185/2015 Dekretua, urriaren 6koa) eta, hala badagokio, arau horiek garatzeko onartzen diren gainerako arau-xedapenetan. Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxearen kasuan, gainera, 148/2007 Dekretua aplikatuko da (148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratatu txarren biktimak diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituena).

### **XEDAPEN IRAGANKORRA**

Basauriko Udalak gizarte-larrialdietarako ostatu-zerbitzuko erabiltzaileek egin beharreko ekarpen ekonomikoa arautzen duen Ordenantza Fiskala onartzen ez duen bitartean, egonaldia doakoa izango da.

### **AZKEN XEDAPENAK.**

Lehena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematen zaio Araudi hau behar bezala interpretatu, garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren jarraibide guztiak emateko.

Bigarrena.- Araudi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hamabost egunera jarriko da indarrean.